

## **FEDEAREN ZABALKUNDEA**

Fedearen transmisinoa izango da Ebanjelizatzearen Bilboko Elizbarrutiko III. Egitasmoaren elburu nagusia. Iru urte oneetan zear auxe izango dau bere leenengo eginkizuna Bizkaiko Elizak baina ez bakarra. Danok konturatzen gara, ez bakarrik fedea baita beste edozein balio transmititzea be, ez dala gauza erreza, Baleiteke Barri Onaren eta fedearen zabalkundeak zailtasun bereziak izatea. Batzuk gaurko gizarteko egoeratik datozanak eta beste batzuk Elizaren barnetik sortzen direnak.

Gaurko gure gizarteko kulturaren agertzen diran gauza bistakoenak oneek dira txostenaren arabera: "Belaunaldien arteko alde ikaragarria, tradizinoak ospea galtzea, erakundeen eraldaketa, aniztasuna, sinisgogortasuna, kultura ondasunak ia guztiengana heltzea, axolagabekeria, esperientziaren eta norbanakoaren nagusitasuna, kontsumismoaren indar handia, aldaketa bizkorrak, bizitza publikoan parte hartu nahia, Iparraldea eta Hegoaldea bereizten dituan leizearen kontzientzia makala" (16. orr.). Elizaren barnean agertzen direnak beste oneek ei dira: "Elizan ardurakide izateko bokaziñoa daben laikoak, Jaungoikoaren esperientziaren makaltasuna, abadetzarako eta erlijioso izateko bokaziñoak murriztea, erlejino aniztasuna, Elizeak gizartean sinisgarritasuna eta ospea galtzea, tirabirak eta deserostasuna Elizan bertan, aparteko misino egoperea autortzea, fedea zabalduko dauan alkarte

izateko benetako borondatea” (16. eta 17. orr.). Gaurko egoerak apaltasunera eta Jaungoikoaganako konfiantzara dei egiten deuskue eleiztarroi: “Jaunaren Berbea entzuten jarri behar gara; gure bizitzaren muin-muinean fedearen topaketearen esperientziari edegita egon behar gatzakoz; Jesukristogan salbatzen dauan Jaungoikoaren ezaugarri ikasteko gertu egon behar dogu, eta holan, fedea transmititzeko baldintza egokian sortu behar doguz” (17. orr.).

Aipatzeko gauzak.

Ezin da III. Egitasmo onen xeetasun guztiak azaldu. Baina merezi dau aurreko bi egitasmoetan agertu ez diran gauza batzuk gogoratzea. Leenengo ta bein, Jaungoikoaren esperientziaren premina. Bizkaiko eleiztarrengan “Jaungoikoaren kristau esperientziaren makaltasuna” (16. orr.) agerian dago. “Gure gizartean, fedearen transmisinoak kristau esperientziarako eta Jesus Jaunagaz aurkitzeko esparruak sortu eta gehitu behar ditu. Esperientzia barik, iragarpena ez da ondo ulertzen, ideologia bihurtzeko eta hutsik, hau da, konpromiso eta ebanjelioaren balioen erreferentzia barik, geratzeko arriskua dau. Ondorioz, fedea, zabaltzeak honetara eroan behar gaitu: kristau testigantza eta konpromisoa bizkortzera, ezinbesteko indar lez eta gure munduan Erreinuaren presentziaren ezaugarri lez (...) Gure izatearen Jaungoikoaren presentzia norberegangatzea, barruratzea, sumatzea, autortzea. Jaungoikoaren kristau esperientzia: izatearen muina eta bizitzaren eta giza historiaren azkenengo adierazgarria dan Jaungoikoaren misteriora zuzenduak izaten iztea da, Jesukristoren Jaungoikoaren `kontakizun´ izateko” (14. eta 19. orr.). Beste gauza bat be azpimarratzen dau III. Egitasmo onek: Familiaren eta kristau ekimeneko ikastetxeen garrantzia: “Familia da egitasmo honen ebanjelizatze jardueraren esparrurik nagusienetarikoa. Aita eta amen eta aitite eta amamen egitekoa ezin baztartuzko bitartekotza da fedea belaunaldi barriei transmititzeko. Kristau ekimeneko ikastetxeak eta erlijinoko eskolen bidez sortzen dan esparruak ere barritu

egin beharko litzatekez, ebanjelizatze ekintza hau bultzatzeko” (14. orr.). Azkenengoz aipatuko neuken gauza berezia breste au izango litzake: misiolari estilo barria. Aurreko bi egitasmoe-tan berba oneek erabiltzen ziran baina ez ezeukan oraingo adiera. Orain arteko esangura auxe izan da: ebajelizatzeko or-duan ezin dala beste barik pentsau jentea ebajelizatuta dagoa-nik. Esaterako, katekesira datoxzan umetxoak inondik inora ez daukela ebanjelio izpirik be. Ta egin bear dan ebanjelizazio zerotik asi bera dogula. Or Jaungoikoaren aztarrenik ez balego bezela... Oraingo ikuspegia oso diferentea da. Beste perspekti-ba batetik urreratzen gara jendeengana: “Komunikaziorako esparru barriak sustatu gura doguz, gure mezua iragarteaz ba-tera, Jaungoikoa, bere grazia, gizon eta emakume guztiongan dagoala eta guztiongan jarduten dauala autortzeko, misiolaria heldzen danerako... Jaungoikoa han dagoalako” (34. orr.). “Mi-siolaria heldzen danerako... Jaungoikoa han dagoala”. Perspek-tiba oso ederra eta aberatsa dogu benetan. Biotzak lau aizetara zabaltzen ditu berba oneek- Ori da oraingo egitasmooaren “mi-sioneru estilo barria”.

### Bi baldintza

III. Egitasmoa aurrera ataratzeko bi baldintza jarten ditu Bil-boko Obispu Jaunak. Bata otoitza eta bestea fede batasuna. Esan leike, dudarik gabe, gauza biotan lar makal aurkitzen da-la Bizkaia aurkitzen dan Eleiza. Naizta testu luzea izan, merezi dau On Rikardoren berbak jartea: “Baldintza bi dira ordezkaezi-nak Elizearen fedea transmititzeko. Lehenengoa otoitz da: apostolu guztiak otoitzlariak dira, eta emonkortasun haundiko aldi historikoak ere otoitzlari haundienak dira. Otoitzak Jaun-goikoaren Berbea finkatzen dau bihotzean. Otoitz barik makal-du egiten da inar autorlea; hoztu egiten da gar apostolikoa; ebanjelizatzeak berak ere zentzuna galtzen dau. (...) Otoitza fedearen arnasketearen antzekoa da; otoitzak fedea aireztatu, sustatu eta esnatu egiten dau. otoitza eta fedearen esperientzia banaezinak dira. Otoitz barik ez dago apostolurik. Baina, gai-

nera, ezinbesteko baldintza dago ebanjelizatzailearengan: benetan ebanjelizatuko badogu, fedearen batasunean bizi behar dugu, zintzotasunez eta eraginkortasunez batuta. Elizeak Jaunganako fedea autortzen dau eta ebanjelizatu egiten dau guk aregaz bat eginda sinisten eta transmititzen dogu Ebanjelioa. (...) Jesusen Espirituak, Maitasunaren Espirituak sustatutako bihotzetik sortzen dan bizimodu bat dago. Gandhik hauxe esaten eban, legenardunen apostolua zan aita Damianen bizitza aitatzeari: merezi dau honako heroismoaren iturria bilatzeak” (8. eta 9. orr.). Berba ederrak ditugu III. Egitasmo au aurrera eramateko guztion artean.

*A. Olea*